

ELORSORO UDAL KIROLDEGIKO BONUEN ORDAINKETARAKO UDAL DIRU - LAGUNTZAK
EMATEKO OINARRIAK 2016.urtea

Oinarri hauek, ELORSORO UDAL KIROLDEGIKO bonuak ordaintzeko Oiartzungo Udalak, Gizarte Saitetik, bideratuko dituen laguntzak arautzea dute helburu.

1.-ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Onuradun izaera lortzeko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte pertsona fisikoek:

- A) Oiartzunen erroldatua egotea.
- B) Eskaera egiterakoan Udaleko zerga obligazioak egunean izatea edo ordaindu gabeko zorren ordainketan luzapena emana edukitzea.
- C) Elorsoro kiroldegian bazkide izatea edo 2016ko urtarrilaren 1ean alta emango duenaren konpromisoa
- D) Jarraian ezarritako egoeretako batean aurkitzea:
 - Foru Aldundiak baloratutako ezintasuna (%33tik gorakoa) izatea.
 - Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte Larrialdietarako laguntzen edo Kotizatu Gabeko Pentsioen onuraduna izatea
 - Baremo ekonomiko hau ez gainditzea (Familia unitateko diru- sarrerak kontutan izango dira).

Senide kopurua	Familia errenta garbia* (€ arte)
1	12.533€
2	20.416€
3	23.100€
4	28.000€
5	35.000€
6	37.800€
7	44.100€
8	50.400€

* Errenta garbia kalkulatzeko kontutan hartuko da:

- a) Errenta aitorenpeko eredu ezberdinetako honako atal hauek
 - Mekanizatua egiten dutenentzat, 109 ereduko Oinarri Likidagarria hartuko da kontutan
 - Arrunta egiten dutenentzat , 138. laukitxoan, oinarri Inputagarrian agertzen den kopurua hartuko da kontutan.
 - Diskete bidez aurkezten dutenentzat, 109 ereduko Oinarri Likidagarria hartuko da kontutan
- b) Errenta aitorena egiten ez dutenentzat: aurkeztutako familia unitateko kide guztien diru sarrera guztiak batuko dira eta batuketa horri kenduko zaio: aplikatzeko diren gastu kengarriak eta konturako atxikipenek egiten duten zenbatekoa.

Familia unitateak kontsideratuko dira:

* Etxe berean bizi diren bikoteak

* Familia liburuko senar-emazte eta 23 urtetik beherako seme-alabak. Banatutako gurasoren batek, berarekin erroldatu gabeko seme-alabak unitate familiarrean sar ditzakete, baldin eta urtearen herena baino gehiago berarekin egoten diela ziurta badezake.

* 23 urtetik gorakoak eta 2016an 23 beteko dituztenak (1993-12-31 baino lehen jaiotak) nahiz eta senide eta gurasoekin bizi, familia unitate bereizi bezala kontsideratuko dira diru laguntza hauekiko

2.-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntza hauek bonoaren kostearen portzentaje bat finantzatzera joko dute, beti ere udalak kontzeptu honetan onartutako aurrekontua eta eskaera kopuruaren arabera.

Bonoaren %100a finantzatuko da:

- %33tik gorako ezintasuna aitortua duten pertsonen kasuan bazkidetza indibiduala egiten duena baldin bada ezintasuna duena.

Bonoaren %-a onartutako aurrekontua eta eskaera kopuruaren arabera finkatuko da:

- 1-D atalean jasotako muga ekonomikoak gainditzen ez dituzten familia unitateak

- Familia unitateko bateren batek %33tik gorako ezintasuna aitortua badu, familia unitatearen ondorio ekonomikoetarako, kide konputagarri bat gehiago kontsideratuko da.

3.-AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- a) Eskaera orria behar bezala beteta eta sinatuta
- b) %33 baino gehiagoko ezintasuna dutenek, banakako bonoaren titular direnean, eskaera orriarekin batera honako agiria aurkeztu beharko dute:
 - Lehen aldiz eskaera egiten denean Foru Aldundiaren ezintasun ziurtagiria
 - Aurreko ekitaldietan ezintasun egoeratik udal laguntza jaso dutenek: kiroldegiko bonoa berritzeko prestatutako agiria
- c) Oinarri hauetako 1.D atalean ezarritako muga ekonomikoa gainditzen ez duten familia unitateek, eskaera orriarekin batera, honako agiri hauetatik dagozkionak:
 - Elkarbizitza ziurtagiria
 - Familia liburua, elkarbizitza agiriarekin bat ez datozen kasuetan
 - Udal zergen obligazioetan egunean daudela edo ordaindu gabeko zorren ordainketan luzapena emana duela ziurtatzen duen udal agiria.
 - Familiako unitatean %33tik gorako ezintasuna duen pertsona banakako bonoaren titularrak ez denean, kide horren Foru Aldundiaren ezintasun ziurtagiria
 - Familia unitateko kide guztien egoera ekonomikoa egiaztatzen dituzten agiriak zurrizko ondoren zehazten direnetatik dagozkienak (23 urte beteak edota 2016an betetzen dituztenek, beraiena bakarrik ekarri beharko dute):
 - Azken Errenta aitortpena (bateratua ala bakoitzari dagozkionak)
 - Errenta egitetik salbuetsiak daudenek:
 - Zerga informazioa jasotzen duen ziurtagiria: (internet bidez honako helbidean egin daiteke eskaera:
<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/RNTSolicitudInfoFiscWEB/portada.do>
 - Langabezi egoeran 6 hilabete edo gehiago daramatzatzenek: Lanbideko ziurtagiria datu ekonomikoekin eta lan-bizitzaren txostena
 - Langile autonomoen lanengatik diru sarrerak izanez gero, "Zenbatespen objektiboa" izenekoaren fotokopia erantsi behar da
 - Soldatetatik, beste kontzeptuetatik eratorrita eduki litezkeen diru-sarreraren ziurtagiriak (azkeneko 3 nominen fotokopia) eta lan-bizitzaren txostena
 - Pentsioaren agiria, hala dagokionean
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)-ren onuradun izatearen egiaztatzea
 - Bananduriko bikoteen kasuan, Errenta aitortpenaz gain, banaketa-sententzia eta hitzarmen erregulatuak.

4.-LAGUNTZA HAUEK, GIZARTE ZERBITZUETATIK LOR DAITEZKEENEN KALTERIK GABE EMANGO DIRA

5.-PROZEDURA

Eskaerak Elorsoro kiroldegian aurkeztuko dira.

Eskaeren aurkezpen epea amaitutakoan, Oiartzungo Udaleko Gizarte Langilea eta Okisaren idazkariak aurkeztukotako eskaerak aztertuko dituzte eta onartu eta baztertuen behin behineko zerrenda osatuko dute.

Behin behineko zerrenda, azaroaren 20tik 30era www.elorsoro.com web orrian eta Elorsoro kiroldegiko oholtzan argitaratuko da, eskatzaileek beren eskaeren egoera ikus dezaten eta zerbaiten faltan edo akatsen bat antzemanaz gero, osatu edo zuzentzeko eska dezaten. Aipatutako epean, behin behineko zerrendaren inguruko argibiderik nahi izanez gero, Oiartzungo Udalean Okisaren bulegora jo daiteke astelehenetik ostiralera 8:00tatik 14:30ak bitartean. Ez da epez kanpoko zuzenketarik onartuko.

Zuzenketak egindakoan, OKISAren idazkariak jasotako eskaerak eta onartu zein baztertuen behin behineko zerrenda Udalean aurkeztuko ditu.

Behin behineko zerrenda aztertutakoan, Gizarte Ongizate Batzordeak dagokion proposamena luzatuko dio Udal Tokiko Gobernu Batzordeari eta beronek erabakiko du onartu eta ukatuen behin betiko zerrenda eta laguntzen zenbatekoa.

Behin betiko zerrendan onartuak izan diren onuradunei dagozkien hobariak, Elorsoro kiroldegiko kuotetan aplikatuko zaizkie 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera eta hobari guztien zenbatekoari dagokion diru kopurua Elorsoroko SABADELLeke 0081 4249 15 0001050006 kontu korrontean ordainduko du Oiartzungo Udalak.

6.- LAGUNTZEN IRAUPENA

Laguntzaren iraupena urte betekoa da: Urtarrilaren 1etik Abenduaren 31 arte.

Laguntza eskaerak urtero berritu behar dira

7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

2016 urterako hobaria jasotzeko laguntzak eskatzeko aurkezpen epea 2015EKO URRIAREN 1-ETIK AZAROAREN 13-RA